



## Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak bakea eta bizikidetzaren landuko ditu bere aniztasunaren ikuspuntutik

- Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzaren Idazkaritzarekin sinatu den hitzarmen baten bitartez egingo da eta Bake eta Bizikidetzaren Planaren garapenaren barruan
- “Bakea eta bizikidetzaren lehenengo urrats hau EGKren aniztasunatik” emango dugula azpimarratu du Itsaso Anduezak, EGK-ko presidentea
- Gaurko topaketan EGK-ko presidentea eta erakundearen beste kide gehiagok Urkullu lehendakariarekin gazteriaren egoeraz mintzatzeko aukera izan dute

*2014ko ekainaren 6an.* Eusko Gazteriaren Kontseiluak bakea eta bizikidetzaren lan ildo berrikerikoa du hemendik aurrera gaur Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzaren Idazkaritzarekin sinatu duen hitzarmenari esker. Itsaso Anduezak, EGK-ko presidentea, eta Iñigo Urkullu lehendakariak gaur sinatu duten hitzarmenak “gazteek bakearen eta bizikidetzaren alorrean zer iritzi eta esperientzia dituzten jasotzea, hauek bakea sendotzeko ahaleginean inplikatzeko eta bizikidetzaren proiektu berriak bultzatzea” du helburu.

Hitzarmenak lankidetzaren esparru bat ezartzen du eta lau lan ildo proposatzen ditu: espazio bat ireki gazteek euren ikuspegiak eta esperientziak elkarbanatu ditzaten, bakearen ideiak partekatuzko gazteen elkarrekin arteko topaketa bat antolatu, giza eskubideen inguruko trebakuntza-programa bat martxan jarri eta gai hau jorratzen duten materialen (liburuak, pelikulak, antzerkiak...) fondo bibliografiko bat sortu elkarte sare osoari eskuragarri jarriko dena.

Itsaso Andueza presidentea “bakea eta bizikidetzaren lehenengo urrats hau EGKren aniztasunatik” emango dugula azpimarratu du, EGKren “berezko ezaugarria” dena. Bere hitzetan “ez dakigu norekin elkartuko garen ezta zer ondorio aterako diren ere, baina nonbaitetik hasi behar da irtenbide komunak lortzeko. Bide luzea izan daiteke baina oso garrantzitsua ikusten duguna gazteen ahotsa entzun dadin”. Bere aldetik, Iñigo Urkullu lehendakariak azaldu du “hitzarmen honen bidez Bake eta Bizikidetzaren 17. ekimena” lantzen dela, “gazterian arloan ekintza zehatzak aurrera eramatea proposatzen duena. Lehendakariarentzat “ez dago inolako ideiarik giza duintasunak baino balio handiagoa duenik” eta mezu hau zabaltzeko EGK-ren aniztasuna oso baliagarria da.

Hitzarmena dela eta, Bake eta Bizikidetzaren Idazkaritzaren eta Gazteria eta Kirol Zuzendaritzaren bitartez, 65.000 euroko dirulaguntza emango zaio EGKri. Horrela, Kontseiluak lan-ildo berria gehituko dio orain garatzen dituenen: parte-hartzea, hezkuntza, enplegua eta etxebizitza eta komunikazioa. Gaur Lehendakariatzara hurbildu diren EGK-ko presidentea, teknikariek eta Batzorde Iraunkorreko kideek denbora tarte bat ere izan dute Urkullurekin beste arloetan lantzen ari diren gaiak komentatzeko; besteen artean, parte-hartzea sustatzeko egin den ikerketa eta laster zabalduko den gida eta gazteen enplegu duina bultzatzeko azken aldiaren egin diren aldarrikapenak.



## El Consejo de la Juventud de Euskadi trabajará temas de paz y convivencia desde su punto de vista plural

- Esto se hará a través de un convenio que se ha firmado con la Secretaría de Paz y Convivencia del Gobierno Vasco y dentro del desarrollo del Plan de Paz y Convivencia
- “Damos este primer paso en temas de paz y convivencia desde la pluralidad de Consejo de la Juventud” subraya la presidenta de EGK, Itsaso Andueza
- En el encuentro de hoy la presidenta de EGK y otros miembros de la entidad han tenido la oportunidad de hablar sobre la situación de los jóvenes con el lehendakari Urkullu

*6 de junio de 2014.* El Consejo de la Juventud de Euskadi vuelve a abrir el área de trabajo de paz y convivencia gracias al convenio que ha firmado con la Secretaría de Paz y Convivencia del Gobierno Vasco. El acuerdo, firmado hoy por la presidenta de EGK, Itsaso Andueza, y el lehendakari Iñigo Urkullu tiene como objetivo “escuchar las opiniones de las personas jóvenes en temas de paz y convivencia, implicarlos en el esfuerzo de la consolidación de la paz e impulsar nuevos proyectos de convivencia”.

El convenio establece un marco de colaboración y propone cuatro vías de trabajo: abrir un espacio para que los jóvenes compartan sus puntos de vista y sus experiencias, organizar un encuentro para que los jóvenes debatan sus ideas en torno a la paz, poner en marcha un programa de formación específica en materia de derechos humanos y crear un fondo bibliográfico con materiales (libros, películas, obras de teatro) que aborden este tema para ponerlo a disposición de toda la red asociativa juvenil.

La presidenta del Consejo, Itsaso Andueza, ha subrayado que “damos este primer paso en temas de paz y convivencia desde la pluralidad de Consejo de la Juventud, una característica propia de nuestra entidad”. Según sus palabras “no sabemos con quién nos reuniremos ni a qué conclusiones llegaremos, pero por algún sitio hay que empezar para llegar a puntos en común. El camino puede ser largo pero lo vemos muy importante para que se escuche la voz de los jóvenes. Por su parte, el lehendakari Iñigo Urkullu ha explicado que “con este convenio se pone en marcha el punto 17 del Plan de Paz y Convivencia que propone acciones concretas en el ámbito de la juventud”. Para el lehendakari, “no hay ninguna idea que esté por encima de la dignidad humana” y, para divulgar este mensaje, es muy válida la diversidad del Consejo de la Juventud.

A raíz del convenio, EGK recibirá 65.000 euros de subvención a través de la Secretaría de Paz y Convivencia y la Dirección de Juventud y Deportes. Así, el Consejo de la Juventud suma un nuevo campo de trabajo a los que ya tiene: participación, educación, empleo y vivienda y comunicación. La presidenta de EGK, los técnicos de la entidad y varios miembros de la Comisión Permanente que se han acercado hoy a Lehendakaritza, han tenido la oportunidad de comentar con Urkullu proyectos que se llevan a cabo en estas otras áreas; entre otros, la investigación que se ha hecho sobre participación y la guía sobre este tema que se divulgará pronto y las últimas reivindicaciones que se han realizado para pedir un empleo digno para los jóvenes.